



## 2022ko kontuak eta 2023ko egitasmo eta aurrekontua onartu ditu Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusiak

**Amasa-Villabonan (Gipuzkoa) ospatu zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen ohiko Batzar Nagusia, pasa den larunbatean, 40 bat lagun bertan zirela. Iazko kontuak berretsi eta aurtengo aurrekontua onartzeaz gain, elkartearen sail eta egitasmo ezberdinen berri emateko aukera eskaini zuen batzarra.**

Pasa den larunbatean ospatu zen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen ohiko Batzar Nagusia, Amasa-Villabonako Subijana Etxean. Elkarteko 40 bat bazkidek hartu zuten parte, eta aho batez onartu zituzten 2022ko kontuak, bai eta 2023ko egitasmo eta aurrekontua ere.

Batzarrak, edonola ere, elkartearen sail eta egitasmo ezberdinak azaltzeko balio izan zuen, diru kontuez harago. Lehendakaritza eta koordinazio taldeak izan ziren hitza hartzen lehenak; tarte horretan, azken urteetan elkarteak bere egitura berrantolatzeko emandako pausuk eta horrek eragindako aldaketak azaldu zituzten bi taldetako kideek. Lehendakaritza taldeak, gainera, taldea beraren erreleboa iragarri zuen. Azaldu zuten, herrigintza eta kulturgintzako beste hainbat erakunde ere egungo moldeetara egokitzen ari diren honetan, Bertsozale Elkarteko

lehendakaritza taldeak ere "aldatzeko premia" du, "egungo egoerari eta egungo bertsoaritzaren mugimenduari erantzun dion" taldea osatu nahian.

Hasierako tarte horren ondotik, banaka hartu zuten hitza elkarte osatzen duten sail ezberdinetako ordezkariak, nabarmendutako egitasmoak azaltzeko. Hala, igaro berri den Bertsolari Txapelketa Nagusiaren balorazioak izan zuten bere tartea, bai eta bertso plazaren egungo egoeraren kontakizunak ere. Hedapen taldeak azken urteetako Hitzetik Hortzera eta bertsoa.eus-eko audientzia datu onak izan zituen hizpide. Ikerkuntza sailak Nafarroako Gobernuo Euskarabidearekin lortutako hitzarmenaren berri eman zuen, 2024rako aurreikusten den Bertsolamintza azaltzeaz gain. Xenpelar Dokumentazio Zentroak bere jardunak Bertsozale Elkartearen duen oinarritzko

kokapena azaldu zuen, eta egungo egoeraren berri eman. Hezkuntza sailak Ipar Euskal Herriko hezkuntza proiektuarentzat prestatzen ari diren materialgintzan jarri zuen azpimarra, eta finantza sailatik finantza eredu beraren berritze beharra nabarmendu zuten.

2022ko kontuen itxiera bozkatu eta onartu, eta 2023ko aurrekontua berretsi ostean, herrialdeetako ordezkariak ere izan zuten hitza. Banaka-banaka, igaro berri den urteko zein martxan denaren inguruko titular nagusiak eman zituzten bost lurraldetako arduradunek.

Mokadutxo batekin eman zitzaion bukaera ohiko Batzar Nagusiari, giro onean.



**MADDI AGIRRE EPELDE**  
Getxo, 2023-02-17  
Abra Sariko txapelduna

**Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke**

Saio denetan egon ohi zara isilpeko fan bezela.  
Behar denetan zitala eta behar denetan itzela.  
Eta badakit, sarritan dena gogorra izaten dela, jende aurrean esango dizut ezingo dut ta bestela.  
Mila esker aita, guztiagatik zuretzako da txapela.



Batzar Nagusiko partaideak, bozketa momentuan. //XDZ

# ZirTok: Umore errimatuaren lehiaketa

Zirtoa erantzun errimatu barregarria da, edozein elkarrizketatan bat-batean erabili litekeena. Zirtoak egiten dituen zirtolaria da, eta zirtoa oinarri duen TikTok-eko lehiaketa ZirTok. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Hiru Damatxok eta Bertsozale Elkartek antolatu dute elkarlanean eta apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean.



Unai Gaztelumendik sortu zu ZirTok lehiaketako logoa. // XDZ

TikTok sare sozialean euskarazko umore errimatu sustatu asmoz antolatu dute ZirTok lehiaketa Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Hiru Damatxo eta Bertsozale Elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorrizuna eraikiz ekimenak lagunduta.

Apirilaren 1etik aurrera euren bideoak igo ditzakete lehiaketan parte hartu nahi dutenek. Izan banaka, binaka edo taldeka, umore errimatuko bideo laburrak sortu beharko dituzte.

Hiru modalitate egongo dira: bata, lehiaketarako propio sortu diren TikTokeko filtroak erabiliaz, bat-batean zirtoa edo erantzun errimatu sortzea da. Bigarren modalitatean, berariazko filtroak erabiliko dira, bat-batean puntuari erantzuteko. Eta hirugarren

modalitatea, esketx errimatuak sortzea da (zirtoka, puntuka, kopletan, rapeatzen... edo nahieran).

Eredu desberdin horien bideoak ikusgai daude TikTokeko Zirtok kontuan, eta baita [www.zirtok.eus](http://www.zirtok.eus) helbidean ere, lehiaketaren oinarriekin batera. ERRE laukoteko Oihana Arana, Leire Vargas, Haizea Arana eta Aner Peritzek osatu dituzte adibideak. Bideoak telefono mugikorrez grabatu daitezke eta formatu bertikala izan behar dute. Denbora aldetik laburra behar du izan eta ezin dute egile eskubideak dituen irudirik edo muskarik izan. Lehiaketatik kanpo geratuko dira pertsonen pribatutasun eta irudi eskubideak urratzen dituzten bideoak, baita umore baztertzailerakoak ere.

ZirTok-en 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, eta parte hartzaile bakoitzak nahi adina bideo igo ditzake TikTok sare sozialera, betiere Zirtok kontua etiketatuta.

Sari nagusia, epaileek emango dutena 500 eurokoa izango da. Esketx errimatuen modalitatean, bat-bateko zirtoen modalitatean eta bat-bateko puntu erantzunen modalitatean 250 euronako sariak izango dira. Eta sari horietaz gain, zozketaz ere beste 250 euroko saria banatuko da.

Maiatzaren 31ra bitarte dago bideoak sortzeko aukera eta lan sarituak ekainaren 16an jakinaraziko dira.

Beraz badakizu, grabatu zure zirtoa eta parte hartu ZirTok lehiaketan.



# Bertsolaritzari buruzko ikerketa-lanen eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko sariak

**Bertsozale Elkarteak, Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean, bertsolaritzari buruzko ikerketa-lanen eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko helburuarekin, 2023an bi sari esleituko ditu.**

## Ikerketa eta master amaierako lanak

Bertsolaritzari buruzko ikerketa eta master amaierako lanen proiektuak sustatzeko deialdia egingo da. Kasu honetan master amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina beste ikerketa lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira. Geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin, horien ikergai nagusia bertsolaritza bada, nahi den jakintza-alorretik ikertua. Nolanahi ere, unibertsitate-irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua. 2023an 2.500 euroko diru-laguntza esleituko da.

Eskariak aurkezteko epea: 2023ko irailaren 18a arte.

Hautatuen izenak eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko eguna: 2023ko urriaren 18a.

Ikerketa lanak amaitzeko epea: 2024ko urriaren 18a, beranduenez.

## Gradu Amaierako Lanak

Bestalde Gradu Amaierako lanen Sarian bertsolaritza ikergai gisa aukeratu izana baloratzea da bigarren deialdiaren helburua. Bertsolaritza ikergai duen Gradu Amaierako Lan bat

edo Goi mailako Antzerki zein Musika ikasketa bukaerako lan bat sarituko da. Deialdira 2020-21, 2021-22 edo 2022-2023 ikasturteetan defendatutakoak izan beharko dute. 2023an 600 euroko sari bat esleituko da.

Lanak aurkezteko epea: 2023ko irailaren 18a.

Informazio guztia eta eskaera orriak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian daude eskura.



Irailaren 18an bukatuko da ikerketa eta master amaierako lanak eta gradu amaierako lanak aurkezteko epea. //XDZ

# Gelatik Plazara jauzi egin dute Gipuzkoako bertso eskoletan

**Martxoan Gelatik Plazara sariketa egin da Gipuzkoan. Herrialdeko eskualde desberdinetan zazpi saio egingo dira guztira.**

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, bertso eskolekin elkarlanean *Gelatik Plazara* ekimena egin du. *Gelatik Plazara*, 14 urtez azpiko ikasleei jendaurrean trebatzeko aukera eskaintzen dien aisialdiko ekimena da. Bertso eskoletako gaztetxoek, Eskolarteko txapelketara iritsi aurretik bertsoarekin gozatzeko gunea izatea du helburu eta baita plazarako zubi lana egiten laguntzea ere. Horrez gain, tokian tokiko bertso eskolak saio berean elkartuta ikasleek elkar ezagutzeko aukera ere izan dute.

Guztira 3-4 lagunez osatutako taldeetan 170 ikaslek hartu dute parte eta honako lanak egin behar izan dituzte: prestatutako agurra kantatu, puntuak erantzun kopletan, gaia emanda bertsolari bati erantzun eta, gaia eta oinak emanda, kopletan edo bertsotan. Saioaren bukaeran talde guztiek jaso dute sariren bat, eta saioak aurkezteaz zein gaztetxoaren lana epaitzeaz bertso eskoletako irakasleak arduratu dira.

Martxoan hasieratik hona, Zumaian, Oñatin eta Elgoibarren egin dira *Gelatik Plazarako* saioak eta martxoaren 31n Azkoitian, Lasarte, Ordizian eta Amezketan egingo dira.



170 ikaslek hartu dute parte Gelatik Plazara ekimenean. //XDZ



## Puntu jarrita

URTZI URRUTIKOETXEA

Etetik milaka kilometrora, nola bizi da bertsoarritza? Herriminak 2023an ez dauka duela ez askora arte migrazioak edo erbesteak zeukan kutsua: teknologiak etengabeko jarria eta komunikazioa dakar, eta fisikoki ere urtean birritan gutxienez ozeanoaren alde horretara joaten gara. Batzuek familiaren hutsunea nabariko dute gehien, ostiraleko pintxopotea besteak, eta izango da herriko kaleen, kostaldearen edo mendi-basoen mira duenik. Bertso-txapelketen zurrunbiloak ere badu tiradizoa, zelan ez, baina ezeren faltarik igartzekotan, osteguneroko bertso-taldearen hutsunea nabari dut.

Oso gazterik hasi eta bizitzako une desberdinetan beti hortxe izan duzun lagun-taldea, ondo zein erdipurdi bertsoan, berbetan, adarra jotzen zein eztabaidari sutsuenetan ibiltzeko lagun-taldea dut Santutxuko bertso-eskola. Zer esanik ez une gozoetarako, baina baita bizitzak eta egunerokotasunak nahi baino estres handiagoa dakarrenean ere. Milaka kilometrotara joatea baino ihes-balbula hoberik ez dut aurkitu, munduko txoko askotan ibilita ere. Abenduan itzuli eta egin genuen lehen bazkarietako bat horixe izan, eta hala izatea espero dut uztailean ere.

Ezin beti ozeanoaren beste aldera begira egon, horratik. Diasporan euskaltasuna beste era batera bizi da, lekuan lekukoarekin hibridazioan; hor hizkuntza da galtzaile sarritan. Horregatik, itzel pozgarria izan da Boisetik gidatuta NABOren (Ipar Amerikako Euskal Elkarte) abian jarri den bertso-eskola. Estatu Batuetako kostalde batetik besteraino dihardugu kantuan, astegunetan eskola-planean, eta igandetan librean, Kalifornian, Wyomingean, Idahon, New Yorken, neroni Washingtonen; ozeanoren zuen aldean ere ez da lagunik falta. Azken puntuaren errepikapenak kili-kolo doaz tarteka, kantatzetik segundu pare batera iristen delako, baina asteko une zoragarrietako bat da niretzat. Lerrook idazterako, Nevadako Renon kantari ari dira, eta badituzte udaberri honetan bestelako saio-proposamenak ere. Kontuak horrela, Todor Azurtza, zer bertso-giro ari zarete sortzen AEBetako mendebalde horretan?

# Koplak

## Bertso-eskolen datu bilketa

Lau urtean behin, haurren eta helduen bertso-eskolen azterketa sakona egiten du Bertsozale elkarteak. Helburua talde ezberdinen informazioa jasotzea da, ondoren datuok harremanetarako eta ikerketarako erabili ahal izateko. Martxan dago [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian bertso-eskoletako arduradunek bete beharreko galdetegia.

# Poto-Finixa



Bertsoaren gurutz-bidea

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

## Atxikimendu deialdia

EAE-ko Hezkuntza Legeak euskal kulturaren transmisioa jaso dezan, atxikimendu deialdian parte izango da Bertsozale Elkarteak. Apirilean Hezkuntza Lege proposamena Eusko Legebiltzarrera heltzea aurreikusten da eta atxikimendu kanpaina bat abiatuko da datozen astetan. 2022an agiria sinatu genuen 20 erakundeok deia luzatuko diegu gainerako elkartei eta norbanakoei, euren babesa adierazi dezaten.



**ANON  
YME  
POP  
ULAR**

Kontrataziorako [marketina@lanku.eus](mailto:marketina@lanku.eus) helbidera idatzi edo **675.716.472** telefonora deitu